



IKER  
GAZTE  
NAZIOARTEKO  
IKERKETA EUSKARAZ

### III. IKERGAZTE NAZIOARTEKO IKERKETA EUSKARAZ

2019ko maiatzaren 27, 28 eta 29  
Baiona, Euskal Herria

ANTOLATZAILEA:  
Udako Euskal Unibertsitatea (UEU)

### GIZA ZIENTZIAK ETA ARTEA

Izen eman: hitzak gizakia gizaki  
dagi

*Jon Mentxakatorre Odriozola*

18-24 or.  
<https://dx.doi.org/10.26876/ikergazte.iii.01.02>



## Izen eman: hitzak gizakia gizaki dagi

Mentxakatorre Odriozola, Jon  
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa  
*mentxaka\_71@hotmail.com*

### *Laburpena*

Heideggerrek azaldu zuen legez, poesiak egia era berezi eta berdingabea dio, opari gisa ematen den izakia hizkuntzan onartuz. Poesia, beraz, gizakiaren pentsamendu eta kulturaren oinarrian dago. Hizkuntzak erakusten duen esanahiaren historiari buruz esandakoagatik, Barfield-ek oinarri horretako poesiaren hitzaren gogo-jarduna adierazi zuen: antzinako poesiaren hizkeran, subjektu-objektu bereizketa egiten ez duen kontzientzia dago. Pentsalari bien ekarpenak azaldu ondoren, poesiaren hitza mito (mythos) dela baieztatzera eramango du Tolkien-en artelanaren azterketak. Ondorioz, hiru egileen ekarpenak elkar uztartuz, gizakia gizaki egiten duen poesiaren hizkuntza mitoak eratzen duela erakutsiko da; ipuinetan hedatzen den hitz, alegia.

Hitz gakoak: Heidegger – Barfield – Tolkien – Hizkuntza – Subkreaizio – Mitopoeia

### *Abstract*

*As Heidegger explained, poetry expresses the truth in a unique and matchless way, homing the being that gives itself as a gift in language. Poetry is therefore the basis of human thinking and culture. According to the history of the meaning of language, Barfield explained how the poetic word works in the aforementioned basis: in the language of ancient poetry there is a consciousness that does not distinguish between subject-object. After presenting the contributions of both thinkers, the analysis of Tolkien's artwork will lead to confirm that the poetic word is a myth (mythos). As a result, the convergence of the contributions of the three authors will show that the poetic language that makes man being human is based on myth; the word that unfolds in a narration.*

*Keywords: Heidegger – Barfield – Tolkien – Language – Sub-creation – Mythopoeia*

## 1. Sarrera

Hamman, Herder eta Humboldtten ondotik, Heideggerrek arrazoimena, *λόγος*, mintzamen dela adierazi zuen: «Mintzamenak baino ez dio gizakiari, gizaki den heinean, izateko gaitasuna ematen» (2001: 187). Hitz eta gogoeta egitea bat dira Heideggerrentzat, baina amildegi handiz banatuta. Nola gauditu? Bata besteari nola lotu? Izen emanez, Heideggerren arabera, mintzamina, bere horretan, *izen esatea* delako. Baina izen emate hori, filosofoak (2001: 196) esan bezala, ez da sailkatze hutsa, izakia hizkuntzan osotasunean onartzea baino, izakiari hizkuntzan leku egitea. Izan ere, Heideggerrentzat, dei egitea honakoa da: hitzez iritzikoa eta honen zentzu-testuingurua ahotsetara ekartzea. Eta, pentsalariak itauntzen zuen legez, izen emate hori zer da? *Poiesis* da.

Poesiak errealitatearen izate eta esentzia hitzaz ezartzeak (Heidegger, 2002: 59) haren mailan erantzuteko gai dela esan nahi du; hau da, hizkuntza errealitateari toki egiteko gai dela, aterpe edo estalpe emateko gai dela –*aísthesis*, erabat–, errealitatea bera erakutsi eta argituz. Era horretara, hitza herri da: errealitateaz mundu dagi –izan daitezkeen munduen artean–, eta haren bitartez bizi da. Izen ematea, beraz, ez da ardura bako eginkizunik, zentzuzkoa, egokia, bat etorria, baizik. Gogoeta eta hausnar mintzamenaz, hizkuntzaz, egiten dira, baina beti mundua poesiaz esan ondoren, poesia izaki esateko gai den bakarra baita: izakiz haraindi egin eta mundu ikuspegi jakinari eusten dion zentzu-egituraren sorrera bere esku baino ez dagoelako. Hala ere, poesiaz izen emateak indar galdu eta ohiko edo teknika-hizkera bihurtzean, izakia itxuraren ostean ezkututzen da, hura egiatan erakusten duten zentzu-harremanak galdu egin dituelako.

Poesiaren esana berriz eskuratzea ezinbestekoa da, ondorioz, eta lan honek horri ekarpena egin nahi dio. Izan ere, Heideggerrek eskatzen zuen metafisikarako bideari lagungarria emateaz gain, hizkuntzak beharizan handi eta zehatza dauka gaur egun: pentsalari eta artegileri oinarri-oinarrian zertan datzan gogorarazi edo berriz erakutsi. Hots, komunikazio tresna edo identitate ikur izan baino lehen, hizkuntza zer den adierazi. Ikerketatxo honen pizgarria, beraz, hizkuntza funtsean artelantzat daukan filosofiari

helduz, gizakiaren muinetik nola jokatzeko gogo da.

## 2. Arloa zertan datzan

Gainerako izakien artean, gizakia ahotsagatik nabarmentzen da. Ahotan loratzen zaion hizkuntzak, errealitatearen gainean ezarritako zentzu-egituraren bidez, adierazle anitzen mundua eraikitzen du, eta horrek, belaunaldi belaunaldi, aldaketak aldaketa, jakituria, tradizioa eta kultura bideratzen ditu. Hau da, hizkuntzak gizakia gizaki dago. Testu honen helburua, hortaz, filosofiaren eremuan hori nola den azaltzea da, datozen lerrotan azalduko den bideari jarraituz.

Lehenik eta behin, J. R. R. Tolkien-en lagun zen Owen Barfield-ek antzinako hizkuntzari buruz emandako argibideak azalduko dira. Horiek lagungarri izanda, bigarrenez, Heideggerren filosofian hizkuntzak daukan egitekoa azalduko da: errealitatea bere aniztasunean esan eta egia esateko bidea eraiki. Izakiei eta munduari hitz ematen die Heideggerrek, eta haien esana, poetek emandako izenen bidez, giza-hizkuntzan onartuz, gizakiak pentsamendua eta kultura eratzen dituela azaldu zuen pentsalariak. Azkenik, Heidegger eta Barfield-en azalpenak J. R. R. Tolkien-en fikzioaren oinarrian dautzan pentsamendu eta praxiaren eskutik osatuko da. Izan ere, Mendebalean ezagun zaigun beste pentsalari edo artegilerik ez bezala, Oxfordeko Ingelera Zahar eta Ingeleseko Literatura katedradunak praktikara eramane zuen bai Heideggerrek, bai Barfield-ek aldarrikatzen zuten poetaren hizkuntza-erabilera, errealitateari sakontasunean izen emanez.

Lanaren helburua, beraz, Heidegger eta Barfield-en ikuspegiak Tolkien-en praktikarekin batera uztartuz, hizkuntzak gizakiari pentsamendua eta kultura bideratzeko oinarria nola ematen dion azaltzea da. Izan ere, *Sein und Zeit* (1927) lanaren ondoren, Heideggerrek toki berezia eskaini zion poesiari bere obran, 2.300 urtez metafisikak baztertutako izakiaren agerpen osoaz hitz egiteko bide bakartzat baitzeukan. Heideggerrengana jo barik ezin zaio gaiari oratu, eta berebiziko garrantzia dauka, sasoi berean, *Poetic Diction* (1928) argitaratu ondoren, Tolkien-ekin batera, Barfield urte luzez poesia eta mitoaren inguruan gogoeta egin izana. Teoria praktikara eramanez, izakia osotasunean dioen izen poetikotik artelana eratu zuelako –literaturaren historian ezagutzen den bakarra–, Tolkien-i esker, Heideggerrek aldarrikatzen zuen poetaren hitza mito (*mythos*) dela ondorioztatuko da: errealitatea sakonki izendatzen duen hitz eta jasotako zentzu ugariaren ipuin, kontakizun edo narrazio.

## 3. Izakiri izen eman

### 3.1. Antzinako izendapena

Hiritan, bizitza telegrafo mugikorraz den tokitan, eguneroko hitzak iraganeko mundu zaharrekoak direla ahazten da; hots, betidaniko hitzak joandako garaitan eta ikuspegiz sortutakoak direla. Hizkuntza, alde orotan, mitoaren bizipen eta kontakizunen ortzi-mugatik dator beti. “Eguzkia etzan da” esapide iharretik “zizare zulo” edota “troleatu” erako kontzeptu eta hitz berrietara, zentzu ematera datozen hitzak mitoaren eremu zabalaren oihartzuna dakarten metafora legez agertzen dira<sup>1</sup>. Izan ere, hizkuntza-mugen barruan, zenbat eta antzinago, zenbat eta iraganago, hizkuntza orduan eta metaforatsuagoa da, honako zentzuan: aspaldiko hitzak ez dira inoiz ezer edo gertakizun fisiko hutsez bakarrik ari, ikusgai eta ikusezin, baitako eta ateko, batasunean dioten gogoeta eta hautemateaz baizik. Hori dela eta, *dies* latindarretik eratorritako *diurnal*, *diary*, *dial* eta *journal* hitzez jardutean, Barfield-ek honela esan zuen:

Aztarnari jarrai diezaiokegunagatik, *dyaus* sanskritar, *zeus* grekar (*dia* akusatibo) eta *tiu* teutoniarra *ortzi* [*sky*] hitza erabili beharreko testuingurutan zerabiltzaten, baina hitzok “Jainko”, “Izaki Goren”, “gainerako jainkoen Aita”, ere esateko zerabiltzaten; *Dyaus pitar* sanskritar,

---

<sup>1</sup> Egia esan, giza-gogoeta mitoak oinarritutakoa baino haratago ez doa. Mundua, beraz, urrutiko izarren aurkikuntzaz ez da haziko, mitoak izen ematean baizik: errealitate berriari zentzua ematean. Poesiaren prosa-fosilizazioari buruz eta errealitatean sakontasunez jarduteko galderari buruz, ikus Gilson (1988), Havelock (1986), Lledó (1961: 12), MacDonald (1895), McLuhan (1998) eta Reale (2005). Gogora bedi filosofoak mitoan ez duela lanik egiten, mitoaren gain edo inguruan baino.

*Zeus pater* grekar, *Deipaturos* iliriar, *Jupiter* latindarra (*Diespiter* era zaharrez). Horren esanahia hobe uler dezakegu, *heaven* hitz ingeles eta *ciel* frantsesa egun ere antzeko helburu bikoitzeko daukaten erabilerei adituz gero, eta nola behin helburu bikoitzik inondik inora ez zegoela ulertuz gero. Oraindik ere bada zenbait ingeles eta frantses hiztun jainkozko zerua ikusgai den ortzi berberatzat daukana; eta gazteleraz bereizketarik egitea are gaitzagoa da. Baina hizkuntzaz epaitzekotan, gure antzinako arbasoek goi urdinari begiratzean leku hutsik ikusten ez zutela onartu behar dugu, jainkozko zein lurtar, Izaki bizidunaren balizko jantzia baino. Eta gertaera hau *diary* eta *divine* hitzen antzekotasunean oraindik indarrean da (2007: 88-89).

Barfield-en arabera, ezaguna zaigun antzinako hizkuntzak irudi eta hitzez-hitzekoaren (literal) artean bereizketarik ez dagien kontzientzia erakusten du. Metafora eta kontzeptuen bereizketa gerokoa zatekeen, gizakiak munduaren batasunean jarduna aldatzean, mitoaren gogoetatik filosofia-zientziarenera jauzi egitean. Ondorioz, kosmosean gizakiaren lekua-hautematearen bihurtzerak honakoa argi uzten du: aroen hasieran, hizkuntza mito zen oro har<sup>2</sup>. Hitzek adiera ugari omen zeuzkaten era berean, edo beste era batera esanda, esanahi bakarra omen zeukaten, hainbat gertakariri egokituta aldi berean (banaketarik gabe), baitakoak zein atekoak, gogozkoak nahiz ekaiak. Hizkuntzaren joera gaur egun arte, Barfield-en iritziz, adierak zehaztu eta argitzea izan da: esanahi-batasuna epaiz banatu. Horregatik, esaterako, Müller-en<sup>3</sup> arabera *arnasek hats* edo *bizi* esan nahiko zukeen, eta “bizitzaren iturri” kontzeptua adierazteko beharra ondoren zetorkeen arren, Barfield-ek honakoa dio:

Halako hipotesirik esanahiaren historiaren ikerketak aurkeztutako edozein argibideren aurkako da; ekai hutsezko “haize” esanahirik alde batetik, eta abstrakzio hutsezko “bizitzaren iturri gizaki edo piztiren baitan” bestetik, bi-biak, giza kontzientzian geroko atzemateak direla ziurtatzen digu. Haien abstrakzio maila eta sinpletasuna aro luzetako garapen intelektualaren erakusle dira. Beraz, *spiritusen* esanahi psikikoa, baten batek “bizitzaren iturri...” ideia abstraktua izan eta horretarako hitza nahi izatetik urrun, “bizitza iturri” ideia abstraktua bere horretan antzinako *arnas esanahi* zehatzaren *produktu* da, bere baitan geroko esanahi bien hazia zeukana. Hortaz, *spiritus* edo *πνεῦμα*, edo hauek eratorriko lehenagoko hitzek, *arnas*, *haize*, *hats*, ezta horiek hirurak batera, esan nahi ez zuten garaian pentsa beharrean, haien antzinako esanahi bereziarena irudikatu behar dugu, ordutik, kontzientziaren garapenaren bidean, aipatutako hiru esanahi zehatzetan trinkotu dena; eta beste hainbaten, zalantza barik, Grezia eta Erromatar garaitik horietarako hitz bakunak aurkitu baitira (1973: 80-81).

Barfield-en iritziz, beraz, mintzamenaren lehen garaian subjektu eta munduaren, gogoeta egin eta atzematearen, arteko bereizketarik ez zegoen: munduaren presentziaren gaineko kontzientziaren aldaketak bizipen-puntu interpretatzaileak banatu egin ditu. Izen emateak, batasun aberatsean, bizipen estetiko-semantiko beteak jasotzen zituen, izakia opari osotzat hartzen baitzen: beste izakirekin harremanetara deitutako eta eskainitakoa. Hitzetan izakia eta haren konbergentzia puntuak jasoz, gizakia gizaki da hizkuntzan zentzu-munduak eraikitzen dituelako. Errealitatea sakontasun osoz esatean, poesia errealitatea oinarritzeko gai da ha aurkitzera doalako, hitzaren *alétheiaren* bidez ezkutuan dagoena argituz. Halako hitzak izakiren gainean ez du ideia edo teoria unibokorik inposatzen, beste izakirekiko batasun eta harremanean onartu baizik, zirrara eta begirunez, opari huts eta aberats legez atzeman egiten

<sup>2</sup> Usener-en lanarekin elkarrizketan, Cassirer-ek dio (1944: 109-111; 1946: 74-75, 88) giza-gogoetatik bai *mythosa*, bai *logosa* hasieratik sortzen direla. Horregatik, gizakia eta haren hizkuntza –irudizkoa zein abstraktua– sortzaileak direla azpimarratzen du, *sinbolikoak* izateagatik (1944: 131), funtsean *poetikoak* direla nabarmendu gabe. Poesiaren izateak osagarritasun edo bidebanatzerik ezeztatzen ez du, ezta errotik lotutako gogoeta egin eta azaltzeko era bi, baina errealitatea agertzen den heinean izendatzeko gaitasuna gailentzen du.

<sup>3</sup> Darwinen eboluzioaren argudioa hizkuntzaren historiara eramanda, antzinakotik egungo gizakiarengainoko gorputz eta adimen garapenaren testuinguruan, abstrakziorako gaitasuna geroko arotakoa dela ulertu da. XIX. mendeko filologoentzat, Max Müller buru, lehen hitzak materialak legez ziratekeen, erabilera zuzenekoak. Hots batez eta egokitasunez izendatuko zuketean, eta abstrakziorako maila handiagoo geroago zetorkeen, hitzak era berritzailean metaforaz lotuz.

baitu<sup>4</sup>. Poesiaren logosak mintzamina bete eta gizakiari zentzu-mundu berezirik ematen dioten ortzi-mugak eraikitzen ditu, gizarte, komunitate, egin dezan. Poesia, hortaz, izaki esan eta kosmos dagiena da; jadanik aurkeztuta, emanda, dagoena aurkitu eta era berdingabea jasotzen duena. Hizkuntza, kultura... poesiaren ondoren baino ez dira. Horregatik, izakia poesiaren esan denean, filo-sofia, hertsiki, filo-logia da. Izen ematea ezagutza gorena da<sup>5</sup>.

### 3.2. Poesia eta bizitza

Gadamerrek (1997: 73) Heideggerrengandik gogoratzen zuenez, latinezko *animal rationale* itzulpenetik gogoeta egiteak filosofia gizakia izaki arrazionaltzat hartzera bideratu du, Aristotelesen jatorrizko *zōon logon echon* greziarretik gogoeta egiteak, zuhertasun handiagoz, gizakia hitzezko izakitzat hartzera daramanean: hizkuntzak gizakia gizaki dago, gizakia hitzaz erakutsi eta gainerako(ar)ekin harremanetan sartzen baita. Horregatik, hizkuntza komunikazio sistema kodifikatutzat hartu aurretik, lehenagoko zerbait azaltzen da: hizkuntza arte eta elkartasun gisa, *poesiaren* hitza baita izakiri errealitateara deitzen diona eta gizakia harekin elkarrizketan jartzen duena (Heidegger, 2002: 45-46). Errealitatea bere egiatan aurkezteko, izaki artean hitzaz zentzu-sarea josiz, gizakiak mundu eraikitzen du. Heideggerren (2000: 60) hitzetan: “‘Poesiaz bizitzea’ jainkoen aurrean egon eta gauzen hurbileko muinaz ukitua izatea da. Bizitza oinarrian ‘poesiazkoa’ izateak, era berean, honakoa esan nahi du: ezarrita (oinarri hartuta) egotea inolako irabazirik ez dela, oparia baizik”.

Hortaz, poesia errealitatearen emari ugariari mintzaminan erantzutean datza: zirrara eta begiespenaren emaitza da, errotiko oparitzat azaltzen den izakiaren hitzezko onarpena, bere horretan *esanda, deitua, ahoskatua*. Poetak, beraz, izakia eta haren zentzu harremanak hizkuntzan hartzen ditu, eta egia era berdingabea azaltzeko bide ematen dio. Hau da, poetaren lana ateratzea, eraztea, da (*schöpfen*, Heidegger, 2002: 48). J. R. R. Tolkien-en hizkerara etorri: *subkreatzea*.

Artegilearen lana ez da erabateko sorkuntza, oparitzat eman eta jasotakoaren garapena baizik. Eskaintzaren onarpena da, berriz gerta ezinezkoa, bizipen estetiko-semantiko aberatsari emandako erantzuntzat egiazko mundu osoa daukana (Heidegger, 2002: 47). Komunikazio ekintza hutsa, ondorioz, hizkuntzaren ekintza sortzailearen ondoren dator. Eta planteamendu hori Tolkien mito-poetaren eskutan praktikara eraman izana filosofiarentzat garrantzitsua da, egilearentzat “hasieran Hitza [bait]zegoen” (Jn 1,1), eta haren ezagutza, Artelan legez, *logoien* aniztasuna izendatzean baitatza.

Tolkien beste artistengandik nabarmentzen duena hau da: Lurrerdia<sup>6</sup> osatzen duen ipuinen multzoa errealitatea bere aberastasun eta hitzaren edertasunean izendatzeko asmatutako hizkuntzei sinesgarritasuna emateko sortu zen<sup>7</sup>. Hau da, Tolkien-entzat lehenik eta behin izena da, eta haren baitako balizko munduen zabalkundea gero: haren narrazio bidezko egia erakusketa. Gaztetatik, hitzekiko maitasunak erakarririk, txanponeko alde biak legez, filologia eta poesiaren bideari ekin zion. Ipuinak ondoren etorri ziren. Tolkien-en literatura lana, beraz, hitzen indar semantikotik hazi zen, eta arte-

<sup>4</sup> Eagleton-en hitzetan (1995: 291): “Izakia, beraz, subjektu edo objektu ez den ‘argigune’ (*Lichtung*) edo aurkitzeko tokia, nolabait batetik besterako berezko erabilgarritasuna dena [...] lehenik eta behin munduandien-izaki denez, ezinbestean beste gauza batzuekiko harremanetako izate era da, eta harreman horien bidez gauzak euren agerkundera daramatza”.

<sup>5</sup> Bruno Schulz-ek errealitatearen esentzia zentzua dela azaldu zuen. Egilearentzat, antzina, izen ematea ez zen zentzu orokorretik zentzu jakina eraztea, deiturikoa bertan txertatzea baino. Hizkuntza mundua ezagutzeko bidea zen; ez, ordea, hartan zatiketak egiteko. Horregatik, hitza argi zen Schulz-entzat: “Hitza errealitatearen itzaltzat, islatzat, daukagu oro har. Aurkakoa esatea zilegiago litzateke. Errealitatea hitzaren itzal da. Filosofia, bere baitan, filologia da, hitzaren ikasketa sakon eta sortzaile” (1990: 117).

<sup>6</sup> *Middle-earth* (*Middangeard*) esateko, Agustin Otsoaren ondorengo *Erdialdeko Lur* itzulpenetik aldentzen gara. Izan ere, mito eta geografiaren testuinguruan, *lurpe, lurgoi* edota *urpe, urgoi* ditugu. Haiei jarraitzen diegu.

<sup>7</sup> Ikus 165., 257. eta 315. gutunak.

osotasuna munduaren polisemian islatutako egia esateko bilatzen du<sup>8</sup>. Horregatik, errealitate bat-beraz herri eta taldeek eduki ditzaketen atzemate ezberdin eta aberatsak aztertzeke, Tolkien-ek errealitatea sakontasun osoz izendatzen duten hainbat hizkuntza asmatu zituen. Ondorioz, haren *legendariumean* hitz oro mundu estetiko berezia erretzeko hazi da. Hori dela eta, 1954-55ean, *Eraztunen Jaunaren* argitalpenaren oste eta kritikaren ulertezintasunaren aurrean, honakoa esan zuen:

Inork ez nau sinesten nire liburu luzea nire estetikaren gogoko den hizkuntzaren itxura benetakoa iruditzeko mundurik sortzeko saiakera dela esatean. Baina egia da. Baten batek (askoren artean) Eraztunen Jauna zertan datzan galde egin zidan, eta ea “alegoria”-rik ote den. Eta ohiko agurrik *elen síla lúmenn’ omentielmo* izateko egoera sortzeko ahalegina dela esan nuen, eta esaldi hori liburua baino askoz lehenagokoa zela (205. gutuna).

Hortaz, hizkuntza-asmakizunak asmakizun mitologikora *ezinbestean* eraman zuela esaten ari zatzaizkigu: izenak Tolkien ipuinera eraman zuela<sup>9</sup>. Horri dagokionez, *Silmarillioneko* Elfoen izartzeari (2013: 45) aditzea garrantzitsua da, isiltasunean, ikusi zuten lehena Cuivienen aintziraren ur-azalean izarren argia izan baitzen. Argia haien begitan betiko lotu zen: izen eman zioten lehena izan zen, eta haien izatea oso-osoa hartan oinarritu zuten<sup>10</sup>. Hizkuntza eta mitologiaren harremana une horretan eraikitzen da, kreazioa estalgabetu eta herriaren eraketaren oinarri izango den izakia onartzean. Haren izatea argi horretatik dator, eta mintzamenen elkarrizketa txikienera heltzen da: “elkar aurkitutakoan izarrik argi ematen ari zaigu” ohiko agurra da Elfoentzat (*FR*, I, iii, 83; 211. gutuna). Argia, hortaz, izate eta mintzamen da. Horregatik, Elfoek euren buruari *Quendi* deritzote, “hots hitzez egiten dutenak”. Ondorioz, haien mitologia datzan edozer, gaizkiaren aurkako borroka, pekatu, zintzotasun zein arte, hitz jarri zuten izaki oro zaintzera zuzentzen da (Segura eta Peris, 2005: 33-34): izarren argia, ortzian Ilúvatar-en nahiaz Vardak piztua, Elfoek Elbereth iritzi eta estualdietan dei egiten diotena (Tolkien, 2013: 16-17). Hortaz, hizkuntzak izateko era eta alde mitikoa errotik sortzen ditu. Haien barne-barneko harremana horretan datza. Mitologiak bihotzetan erein eta ongarrizten duena beti arriskuan dagoena da: izate zein hizkuntzaren iturria. Horregatik, Tolkien-ek (2006: 122) honakoa esan zuen: “Gure munduan gogoia, hizkuntza eta ipuina adinkideak dira”.

Tolkien-en ereduarekin bat, hortaz, honakoa esan daiteke: mitoak ez du bere baitan elementu jakina gordetzen, bizipen iturri oso-osoa baino: zabaltzera deitutako mundua. Horregatik, Tolkien-en fikzioa mundu honetako beste edozein kosmo-mitologia legez eraiki dela onar dezakegu: izakien gainean josi, eta hazkunde eta elkargune euskarri diren, zentzu-loturen egituraz, hitzak oinarritzko narrazioa sortzen du. Hizkuntzaren bidezko Tolkien-en subkreazioa mundu honetako kultura orok izatea oinarritu eta zabaltzeko era berera egiten da: aurkeztu, eman, egiten den izakiari izen ematen zaio, eta izaki horrek beste izakiekiko daukan harreman eta zentzu-koherentzia esaten da, munduaren egia era berezian azaltzen duen egitura eraikiz, izakiari irizteko hizkera berezia erabiliz. Hizkuntza orok kultura dagi irudimen berezia dakarrelako baitan; hots, munduaren bizipen (estetiko) berdingabea, izakiri argi eman eta haren izatea kontatzeko era ordezkazina. Horregatik, *mythosak*, zentzua narrazio egitean, ernamuinean duen mundu-bizipena lorarazten du.

#### 4. Ondorioak

Tolkien-en Elfoen izartzeak erakusten duenez, hizkuntza arte eta talde-sorkuntza da, esker onez presentzia eta opari den errealitatearen gainean eginiko fundazio den heinean. Esandakoarekin,

---

<sup>8</sup> Wittgensteinengandik haratago, ikus Gellner (1959) eta Sokolowski (1978). Bestalde, gogoan izan bedi, hitz subkreatzailearen gainean, Heidegger eta Tolkien-en ekarpenak batera uztartu zituen lehena Segura (2011) izan zela.

<sup>9</sup> Tolkien-ek berak hainbatean baieztatu eta iruzkindu zuen; ikus 2006 (210-211) eta 180. gutuna.

<sup>10</sup> Tolkien-en isiltasun, aurkitutako aberastasunaren aurreko zirraren indar, hatsa galdu eta hizkuntza ahalmentsuaren adibide on bi hemen aurki daitezke: *The Hobbit* (198) eta *The Lord of the Rings* (*FR*, II, vi, 358-360); Bilboren eskutik bata, Frodorenetik bestea.

subkreatzaile edo egileorde den poesiaren hitza, zentzuaren ortzi-mugak fundatzean gogoeta eta mintzamenaren arteko aldearen gainera, *mythos* dela ondorioztatu behar dugu. Opari aberats eta liluragarri gisa nabaritu eta mintzamenera eramandako errealitateak bere sakontasun anitza batasunean batzen duen hitzaren beharra daukalako, eta halako hitzetatik bere potentzia semantikoak zentzu-koherentzia eta egia era berezian esateko behar dituen ipuin-egiturak zabaltzen dituelako. *Mythosa*, hortaz, munduaren opari-emanaren jardule, hitz eta ipuin da.

Poesiaren hitzak, munduaren bizipen anitzari oratzen dioenean, kontakizunaren zabalkuntza behar du: mitoa narrazio, talde-kontakizun, bihurtzen da<sup>11</sup>. Labur esanda, mitoa errealitatearekin elkarrizketan diharduen hitza da, lehenengo isiltasuna [*mythos*] delako, eta haren mailari dagokion erantzuna gero. Hau da, poesiaren hitza subkreatzailea da, munduaren aurreko isiltasun eta zirraran, bere presentzian oparizat emandako izakia bildu egiten duelako, errealitatearen oinarriak jarri eta hedatzeko. Horregatik, poesiaren hitza *mythos* dela esan daiteke.

Ipuina hitzaren zentzu-eruditik sortzeak bere poesia-izaera nabarmentzen du: hitza muin-muinean sortzaile da, eta narrazio ekintza, narrazioa bera, sorkuntza, bere horretan. Mitoaren poetikak, hortaz, *mythos* oro oinarrian *poiesis* gai eta bide dela adierazten du: bizipen sakoneko hitz eta ipuin. Tolkien-ek, beraz, literatura-praxiz hizkuntza eta mitologiaren barne-barneko harremana opariaren aurreko zirrarez errealitateari izen ematean datzala erakusten digu. Hori dela eta, Heidegger eta Barfield filosofoen mintzamen eta poesiaren hitzari buruzko adierazpenek Tolkien-en lan mito-poetikoan saiakera aurkitzen dute. Hau da, XX. mende bete-betean, hitzak soinu eta esanahi arteko lotura bako hizki multzoa denean, gizakia mintzamen-izaki, hitz-izaki, denaren aurkezpen eta azalpena ditugu. *Mythosa Logosaren* egileorde eta hedatzaile gisa garatuz gizakiari eusten diona da. Ondorioz, komunikazio tresnatzat hartzean ere, gogoan izan behar dugu hitza, lehenik eta behin, *homo sapiensari* gizaki izateko bide ematen dion zentzuaren oinarri eta eramaile dela.

## 5. Etorkizunerako iker-lerroak

Lan honetatik abiatuta planteatzen diren erronkak eta bideak hainbat dira. Nagusien artean, honako hiru aipatuko ditugu: 1) Izenaren teologian, izakiri emandako izenak gizakiari zenbat zor dion aztertzea. 2) Antropologia filosofikoan, hitzak mintzamena nola bete eta osatzen duen ikertzea. 3) Hizkuntzalaritzan, munduan ematen den erantzun berezi gisa, estetikak daukan tokia pentsatzea.

## 6. Erreferentziak

- Barfield, O. (1973). *Poetic Diction. A Study in Meaning*, Wesleyan University Press, Middletown.
- , (2007). *History in English Words*, Lindisfarne Books, Barrington.
- Cassirer, E. (1944). *An Essay on Man. An Introduction to a Philosophy of Culture*. Yale University Press, New Haven eta London.
- , (1946). *Language and Myth*. Itz. Susanne K. Langer. Dover, New York.
- Eagleton, T. (1995). *The Ideology of the Aesthetic*. Basil Blackwell, Cambridge eta Oxford.
- Gadamer, H-G. (1997). *Mito y razón*. Itz. José Francisco Zúñiga García. Paidós,artzelona.
- Gellner, E. (1959). *Words and Things: A Critical Account of Linguistic Philosophy and a Study in Ideology*. Gollancz, London.
- Gilson, É. (1988). *Linguistics and Philosophy. An Essay on the Philosophical Constants of Language*. Itz. John Lyon. University of Notre Dame Press, Notre Dame.
- Havelock, E. (1986). *The Muse Learns to Write. Reflections on Orality and Literacy from Antiquity to the Present*. Yale University Press, New Haven and London.
- Heidegger, M. (2000). "Hölderlin and the Essence of Poetry", in *Elucidations of Hölderlin's Poetry*. Itz. K. Hoeller. Humanity Books, New York, 51-66.
- , (2001). "Language", in A. Hofstadter (itz. eta arg.), *Poetry, Language, Thought*, Perennial Classics, New York, 185-208.

---

<sup>11</sup> Gadamerrek (1997: 32-33) izakiren aberastasuna esateko erak mitoaren aldaeratan islatzen direla dio.

- , (2002). “The Origin of the Work of Art”, in J. Young eta K. Haynes (itz. eta arg.), *Martin Heidegger: Off the Beaten Track*, Cambridge University Press, Cambridge, 1-54.
- Lledó, E. (1961). *El concepto poiesis en la filosofía griega: Heráclito-Sofistas-Platón*, CSIC, Madril.
- MacDonald, G. (1895). “The Imagination: Its Functions and its Culture”, in *A Dish of Orts: Chiefly Papers on the Imagination, and on Shakspeare*, Sampson Low Marston & Company, London, 1-42.
- McLuhan, M. (2002). *The Gutenberg Galaxy: The Making of Typographic Man*. University of Toronto Press, Toronto.
- Schulz, B. (1990). “The Mythologizing of Reality”, in J. Ficowski (arg.), *Letters and Drawings of Bruno Schulz with Selected Prose*. Itz. W. Arndt eta V. Nelson, Fromm International Publishing, New York, 115-117.
- Segura, E. (2011). “*Verbum y Mitopoeia: Palabra Poética e Invención del Ser en Tolkien y Heidegger*”, in M. Sanz, S. Álvarez eta S. Mars (arg.), *Premios Gandalf & Ælfwine 2009 y 2010*, Sociedad Tolkien Española, Madril, 357-375.
- Segura, E.; Peris, G. (2005). “Tolkien as Philo-Logist”, in T. Honegger (arg.), *Reconsidering Tolkien*. Walking Tree Publishers, Zurich eta Jena, 31-43.
- Sokolowski, R. (1978). *Presence and Absence: A Philosophical Investigation of Language and Being*, Indiana University Press, Bloomington.
- Tolkien, J. R. R. (2000). *The Letters of J. R. R. Tolkien: A Selection*. Arg. Humphrey Carpenter. Lag. C. Tolkien. HarperCollins, London.
- , (2006). *The Monsters and the Critics and Other Essays*. Arg. C. Tolkien. HarperCollins, London.
- , (2011). *The Hobbit, or There and Back Again*. HarperCollins, London.
- , (2013). *The Silmarillion*. Arg. C. Tolkien, HarperCollins, London.
- , (2014). *The Lord of the Rings*. HarperCollins, London.

## 7. Esker ona

Artikulu honetan aurkeztutakoa 2019ko udaberrian Madrilgo Unibertsitate Autonomoan babestuko den *La muerte como don: J. R. R. Tolkien. Hacia una metafísica del arte y la redención* tesian jasota, eta 2018ko irailaren 27an, Valladolideko Unibertsitatean, Antropologia Filosofikoari buruzko kongresuan, emandako *Palabra poética: la fundación del ser humano desde el lenguaje* hitzaldian oinarrituta dago. Aurkezpenaren harira izandako elkarrizketagatik, eskerrik asko bertako entzuleri.